



## **Hartu hitza!**

### **Bigarren fasea hastear da**

- **Partaidetzazko aurrekontuen ekimena garai erabakiorran sartu da, finalisten artean botoa emateko aukera irekitzear baita.**
- **Azaroaren 15etik 30era irekiko da bigarren hautaketa-prozesua, eta hautes-ontzietan edo on-line bidez parte hartu ahal izango da.**
- **Andoaingo Udalak, bigarren fase honetan ere, parte-hartzera gonbidatu nahi ditu andoaindarrak.**

**Andoainen, 23-11-08.-** Andoaingo Udal Lansail guztietako kideez osaturiko mahai teknikoak lehen fasean jasotako proposamenak aztertu ditu, banan-bana. Urriaren 256 proposamen iritsi dira, herrian barrena jarritako hautes-ontzietan eta Andoain.eus webgunearen bitartez jasotakoak. Azkenearako, 14 proposamen iritsi dira bigarren fasera. Herritarrek horien guztien artean botoa emateko aukera izango dute.

Azaroaren 15etik 30era irekiko da bigarren hautaketa-prozesua, eta mekanika lehen fasearen beretsua da. Etxean jasotako eskuorria betez eta herrian barrena aurki daitezkeen hautes-ontzietan utziz, edo on line bidez, Andoain.eus webgunean aurki daitezkeen formularioa betez parte hartu ahal izango da.

2024ko Udal aurrekontuetan herritarren zein partida txertatzeko garai erabakiorran murgildu gara, beraz. Datozen egunetan abiatuko da bigarren fasea, eta bozkatuenak diren partidak Udal aurrekontuaren bidez gauzatu dira. Lehen faseko joera errepikatuz gero, aurreko bi edizioetan baino parte hartze handiagoa izango da. Gogoan izan behar da, lehen fasean 256 proposamen jaso zirela. Aurreko bi edizioetako kopurua nabarmen igo da, kopurua ia bikoizteraino. Oraingoan ere, 16-18 urteko gazteek botoa emateko aukera izango dute.

Finalera iritsitako proposamenak askotarikoak dira. Besteak beste, irisgarritasuna, digitalizazioa, ariketa fisikoa, hirigintza edota lehen sektoreari dagozkionak dira. Herritarrek jasotako eskuorrian 14 egitasmo horien izena, deskribapena eta aurreikusitako diru-partida zehazten dira. 14 horietatik herritar bakoitzak 3 aukeratuko ditu, eta norberaren interes edo gustuaren arabera puntuazioa ezarriko du. Gogokoen duenari 3 puntu emango dizkio; bigarren gogokoenari, 2; eta hirugarren gogokoenari, 1.

Bigarren fasea itxita, zenbaketa-garaia abiatuko da.

Andoaingo Udalak bigarren fase honetan ere parte-hartzera gonbidatu nahi ditu andoaindarrak.